

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

# Bultzada Hego Afrikako laborantza erreformari

Iragan asteko Donald Trumpen txio batek mundu osoari gogoratu dio Hego Afrikan nekazaritza erreforma aurrera atera nahian ari direla. Aro digitalean lurraren gaineko kontuek interes handirik pizten ez badute ere, hegoafrikarrek denbora luzea daramate laborantza erreformaren nondik norakoak eztabaidatzen. Bada, eztabaidak bultzada handia jaso zuen iragan urteko abenduan, ANC Afrikako Kongresu Nazionalaren 54. konferentzian. Bertan onartu zen ebazpenak Hego Afrikako Konstituzioa aldatzea eta konpentsaziorik gabeko lur desjabetzei bide ematea eskatzen zuen. Ordutik, Estatuak antolatutako bileretan auzia luze eta zabal eztabaidatzen ari dira. Beltzak eta zuriak, lur-jabeak eta lurrik gabeak, denak ari dira iritzia ematen. Gaiaren inguruan nazio eztabaida zabal gorpuzten ari da, Donald Trumpek eta FOX kateak botatoko purrustadetatik oso urruti.

Hegoafrikarrek itxaropen handia zuten jarrita nekazaritza erreforman, beren bizi baldintzak hobetzeko baliagarria izango zelakoan. Baina *apartheid*-a amaitu zenetik jada 24 urte pasata, orain arteko saiakerak ez dute emaitzarik eman. Lehen saiakeran, *restitution* edo lehengoratzean jarri zuten indarra. Euren lurretatik indarrez kanporatuak diruz konpentsatzea zen ideia. Diruak soilik, lurrik gabe, ez zuen baina aukerarik ematen berriro nekazaritzan hasteko. Horregatik ez zuen emaitza handirik ekarri bide horrek.

Hurrengo urratsean *redistribution* edo lur banaketa izan zen Gobernuaren lehentasuna. Baina prozesuak ez zuen esperotako emaitzarik izan. Oso eskema korapilatsua planteatu zen lur merkatua ez kaltetzeko. Gobernuak berak erosten zizkien lurak saltzeko prest zeuden jabeek, eta, ondoren, lursailak banatzen zituen. Prozesu mantsoa izateaz gain, lurra jasotzen zutenek ez zuten prozesuaren hainbat erabaki garrantzitsutan parte hartzen. Azken finean, administrazioaren ikuspuntutik

egiten zen banaketa, jarduera ekonomikoaren ikuspuntutik zentzurik ez zuen banaketa. 2000. urtean Gobernuak saiatu zen erabakiak deszentralizatu eta sistema hobetzen. Baina horrek beste arazo bat ekarri zuen: Gobernuako agenteak erraz erortzen ziren tokiko jauntxoaren eraginpean, eta, azkenean, tokiko eliteek ateratzen zuten etekinik handiena.

Horiek horrela, 24 urteren buruan, lurren %72 gutxiengo zuriaren esku daude –populazioaren %8 dira–. Beltzek, biztanleen %80 izanik, lurren %4 soilik kontrolatzen dituzte. Argi dago, beraz, oso gutxi aurreratu dela laborantza erreforman eta, ondorioz, baita aukera berdintasunean ere. Beltzen artean atsekabea gero eta handiagoa izanik, Cyril Ramaphosaren Gobernuak bultzada politikoa eman nahi izan dio gaiari. Eztabaida nagusia konpentsaziorik gabeko desjabetzen inguruan

David Mabuza lehendakariordeak aurreratu duenez, laborantza erreforma lur publikoetatik hasiko da, lurrei erabilera egokia ematen zaiela ziurtatzeko

ematen ari bada ere, Exekutiboaren asmoak zabalagoak dira. Egunotan, David Mabuza lehendakariordeak nekazarien gailur batean aurreratu duenez, laborantza erreforma lur publikoetatik hasiko da, nekazaritza ekoizpenaren ikuspuntutik lurrei erabilera egokia ematen zaiela ziurtatzeko. Horrez gain, lurra banatu ondorengo urratsak laguntzeko programa berezi bat prestatzen ari direla azaldu du. Helburua ez da lurra banatzea, lursailok emankorrak izatea baizik. Badirudi Gobernu berriak iraganeko akatsetatik ikasi duela; azken finean, nekazaritza erreformen arazo nagusia ez baita lurra banatzea izaten, ondorengo urratsak baizik. Nekazariak ez badute baliabide nahikorik lursailetan inbertsio minimoak egiteko, alferrikakoa izaten da lurra banatzea. •

# PLASTIKOEN IRAULTZA

Debeku eta murrizketak nagusitzen ari badira ere, ez dira nahikoak plastikoaren industriaren gorakada gelditzeko

**P**lastikozko poltsak kobratzen hasi berri dira gurean eta, agian, horrekin plastiko produktioa neurri batean murriztea lortuko dugu. Izan ere, birziklatze plantetara iristen diren material horretako hondakinen portzentaje oso altu bat poltsak dira. Marka batzuk hasi dira jada asmatzen euren produktuak “biluzik” eskaintzeko moduak, eta, modan dagoen joera bat dela badirudi ere, ez da munduan dagoen arazoari aurre egiteko neurri eraginkorra. Ez behintzat erabaki bateratu bat ez bada.

Izan ere, plastikoaren industria etengabe hazten ari da garabidean diren herrialdeetako kontsumoaren eta garatutako herrialdeetako produktu teknikoagoen eraginez. Horiek askoz pisu handiagoa dute eko-

 ZIENTZIA / gaur8.info

Aqua taldearen «Barbie girl» abestiak zioen plastikozko bizitza zoragarria dela, baina material honen gehiegizko erabilerak beste iritzi bat hartzera eramán gaitu. Plastikoa mugatzen ere hasiak gara jada herrialde batzuetan, garabidean diren beste batzuetan kontsumoak gora egiten duen bitartean.

logisten protestek eta legearen gogortzeak baino. Horren erakusle, azken hamar urteotan mundu mailako plastiko ekoizpena 245 milioi tonakoa izatetik 348 milioi tonakoa izatera pasa da, Plastics Europe federazioak emandako datuen arabera. 2017an, adibidez, gorakada %3,9koa izan zen, aurreko urteetako joera kezkgarri berari jarraipena emanez (%4ko hazkundea 2016an eta %3,5koa 2015ean).

Termoplastikoak soilik kontuan hartuz –hau da, polietile-

no tereftalatoa (PET), polipropilenoa, polietilenoa edo polibinil kloruroa (PVC) bezalako produktu arruntenak–, ekoizpenak %4,7 egin du gora urtero 1990 eta 2017 artean. «Erritmo berean jarraituko al du hazkundeak? Baietz suposatzen dut», onartzen du kezkatuta Plastics Europe federazioko gai teknikoaren zuzendaria den Herve Milletek.

Txina da munduko plastiko ekoizle handiena, ekoizpen osoaren %29 baino gehiagorekin –duela hamar urte %15 besterik ez zuen ekoizten–. Plastikoa kontsumoa garapen ekonomikoarekin dago lotuta, azpiegituren eraikuntzan, garraioan zein sektore elektriko eta elektronikoetan erabiltzen baita. Plastikoen lehen aplikazioa ontziak dira (%40).

Garabidean diren herrialdeak kontsumoarekin oso lotuta daude, baina jada garatuta

daudenak ere ez dira atzean gelditzen. Polimero berriak sortzen ari dira, medikuntzan edo garraioan aplikagarriak, baita kirol zapatiletan ere. Plastikoa berriak sortzen diren bitartean, horien erabileraren kontrako ahotsak ere gero eta gehiago dira. Kutsadurak eragindako kezka tarteko, erabili eta botatzeko plastikoa arautzeko legeak indartzen ari dira. Horrek kezka sortu du ekoizlearen artean.

Estatu frantsesean erabili eta botatzeko baxerak desgertu egin beharko dira 2020rako biodegradagarriak ez badira. Konpostagarriak ez diren plastikozko poltsa finak, berriz, 2017tik daude debekatuak. Itsasoetako kutsadurari aurre egiteko bide bezala, herrialde ugari hartu dituzte antzeko neurriak.

Ildo berean, maiatz bukean Europako Batzordeak berak kotoizko zotzak, plastikozko mahai tresnak, platerak, lastotxoak, koktelak nahaste-

Plastikoen erabilera murrizteko neurriak hartuagatik, etengabe sortzen dira plastiko berriak. Horrenbestez, material honen erabilerak gora egiten du etengabe.

Paul J. RICHARDS / Vivek PRAKASH | AFP



ko hagaxkak eta globoak eus-  
teko makilak debekatzea pro-  
posatu zuen.

#### BIRZIKLATZEAREN ERRONKA

Orain arte hartutako neurriek ez diote gehiegi eragiten sek-  
toareari, baina epe luzera eragi-  
na izango dutela uste dute adi-  
tuek. Hala, ekoizleak ere  
neurriok kontuan hartzen ari  
dira; asko dira euren produk-  
tuak sortzeko birziklatutako  
materialak erabiltzeko kon-  
promisoa hartu dutenak. Hori  
dela eta, materialok jada ez di-  
ra hondakin bezala ikusten, le-  
hengai bezala baizik. Adituen-  
tzat enpresen etorkizuna hori  
da, alegia, euren plastiko birji-  
nak eta birziklatuak kudeatu  
ahal izatea. Puntu horretara  
iristeko, ordea, urte batzuk pa-  
satu beharko dira oraindik.

Pixkanaka birziklapena gero  
eta emaitza hobekia lortzen ari  
den arren, eragina oraindik  
mugatua da. Adibidez, Erru-  
sian asko dago egiteko honda-  
kinen kudeaketari dagokionez.

**Estatu frantsesean erabili eta botatzeko  
baxerak desagertu egin beharko dira 2020rako  
biodegradagarriak ez badira. Plastikozko poltsa  
finak debekatuta daude 2017. urteaz geroztik**

**Plastikozko produktuen ekoizle askok material  
birziklatuekin lan egiteko konpromisoa hartu  
dute. Materialok jada ez dituzte hondakin  
bezala ikusten, lehengai bezala baizik**

Greenpeace talde ekologista-  
ren arabera, 70 milioi tona za-  
bor sortzen ditu herrialde  
erraldoiak, eta gaikako bilketa  
ehun hiri ingurutan soilik da-  
go ezarrita. Horregatik, honda-  
kinak –birziklagarriak, birzi-  
klagaitzak eta organikoak–,  
gero eta kutsakorragoak diren  
zabortegetan pilatzen dira.

Azkenengo hamar urteotan,  
Errusiako zabor bolumenak  
%30 egin du gora. Hondakinen  
%2 erraustu egiten dituzte,  
eta, %7, birziklatu. Beste guztia  
zabortegetara doa. Horrek  
arazo ugari sortzen ditu. Mos-  
ku inguruko 24 zabortege itxi

behar izan dituzte azken bost  
urteotan osasun arazoengatik.  
Beste hamabost zabalik jarrai-  
tzen duten zabor-mendi naz-  
kagarriak dira. Gehienak duela  
50 urte inguru sortu zituzten,  
ur edo gas tratamenduko ino-  
lako neurririk gabe.

Moskutik 6 kilometrora da-  
goen Balaxikha hirian sortuta-  
ko polemika akuilu, kezka  
Errusian barna hedatu da. On-  
doan duten zabortegearen ki-  
ratsarekin itota, Vladimir Pu-  
tin presidenteari ixteko eskatu  
zioten herritarrek, eta, ordu-  
tik, eztabaida piztu da. Mar-  
txoaren amaieran, adibidez,  
Volokolamseko 50 haurrek  
medikura joan behar izan zu-  
ten gertuko zabortegei batetik  
iritsitako gasekin intoxikatu-  
ta. Milaka herritar kalera atera  
ziren zabortegea ixtea exijituz.

Egoera ikusita, Errusiako Go-  
bernuak bost erraustegi eraiki-  
ko zituela iragarri zuen. Lehen  
biek 700.000 tona errausteko  
gaitasuna izango dute eta  
2021erako martxan egon be-

harko lukete. Obrak datozen  
asteetan dira hastekoak, baina  
herritarrek erabakiari aurre  
egin diote erraustegiekin ingu-  
rugihoan izango duten eragin  
txarragatik kezkatuta. Proiek-  
tuaren kontra eta birziklatze  
planten alde 4.000 sinadura  
bildu eta Putini bidali dizkiote  
herritarrek; uste dute zaborra-  
ren arazoa konpontzeko bidea  
ez dela katearen azken pauso-  
tik hasi behar. Proiektuaren  
zuzendaria den Andrei Txilpe-  
lovek, ordea, teknologia aurre-  
ratuak erabiliko direla defen-  
datu du. «Faktoria hauek ez  
dira arriskutsuak. Dioxinak  
eta bestelako elementu arris-  
kutsuak ez dira plantatik ate-  
rako», ziurtatu du.

Ekologistek, berriz, beste iri-  
tzi bat dute eta uste dute hon-  
dakinak erraustea ez dela ir-  
tenbiderik onena. «Zertarako  
sortu kutsadura iturri izango  
den planta bat, tratamenduko  
plantekin konpondu badeza-  
kegu arazoa?», defendatu dute  
ekologisten ordezkariak. •

## ZABORREZ BETETAKO HONDARTZA

Hego Pazifikoko  
Henderson uhartea  
Lurreko lekurik  
garbienetako bat izan  
beharko litzateke, bertan  
ez delako inor bizi eta  
gertuen duen herria 193  
kilometrora dagoen  
uharte batean baitago.  
Hala ere, bertako  
hondartzak zaborrez  
beteta daude.  
Korronteek eraman  
dituzte hondakin  
guztiok. 2015ean 17,6  
zabor tona garbitu  
zituzten, gehiena  
plastikoa. Pieza asko  
hondarrean sartuta  
zeuden, beraz, arazoa  
dirudiena baino  
kezkarriagoa da.  
Animaliek plastikoak  
jaten dituzte edo bertan  
preso gelditzen dira.



# KIRGIZISTAN

## Nahitaezko ezkontzen aurkako jarrera indartu du ikasle baten erailketak

**B**urulai Turdaaly Kyzy ikasle gaztea berarekin ezkondu nahi zuen gizon baten bahitu eta erail zuen. Neska bahitu ezkontzera behartzeko, horixe izaten da Erdialdeko Asiako herrialde musulmanetako gizon baten askok buruan duten ideia.

«Nire alaba txikia zen, apala eta ongi hezitakoa», azaldu du Gulnara Kojanaliieva amak, begiak malkotan dituela. Aldi berean, imam batek gaztearen alde otoitz egiten du, heriotza iritsi zenetik berrogei egun pasa direnean. «Etorkizunerako horrenbeste proiektu buruan izan eta begira», erantsi du alaba galdu duen emakumeak.

Burulai Turdaaly Kyzy 20 urteko medikuntza ikasleak pediatria izan nahi zuen. Ezkontzeko proiektua ere bazuen, baina ez bahitzailearekin, as-

ATZERRIA / joseangel.oria@gaur8.info

Berarekin ezkondu nahi zuen gizon batek bahitu eta eraildako Burulai Turdaaly Kyzy ikaslearen hilketak gogor kolpatu du Kirgizistan. Erdialdeko Asiako herrialde musulmanetan ohikoa izaten da «andregaiak lapurtzea» ezkontzera behartzeko, baina 20 urteko medikuntza ikaslea polizia-etxe batean erail izanak nahitaezko ezkontzen aurkako jarrera indartu du Kirgizistanen.

palditik mutil lagun zuen gaztearekin baizik. Baina, zoritxarrez, gauzak ez ziren berak nahi bezala gertatu. Ikaslea ezkontzera derrigortu nahi zuen gizon bat Burulai Turdaaly Kyzy bahitzen saiatu zen, baina gaizki atera zitzaion eta azkenean polizia-etxera eraman zuten. Baita ikasle gaztea bere ere. «Andregaiak lapurtzea» oso ohikoa da herritar gehienak musulmanak diren erre-


publika sobietar ohian. Kasu honetan, Poliziak hartutako erabakia tragikoa izan zen: gizonak ikaslea polizia-etxean bertan hil zuen. Maiatza bukatzeko zegoen oraindik.

### SEKULAKO ASTINDUA

Sei milioi biztanle inguru dituen herrialdea erabat astindu zuen Burulai Turdaaly Kyzyren erailketak. Milaka lagun kalera irten ziren protesta egi-

tera, krimena salatzen. Nazio Batuen Erakundeak eta giza eskubideen aldeko elkarteek gaitzetsi egin zuten neskaren erailketa. Asiako herri nomada batzuek erabiltzen duten jurta askoren sarreretan hildako gaztearen erretratua jarri zuten zintzilik. Eskolara eramaten zuen uniformeak jantzita ageri da argazki horietan. Ile beltz lisoa du. Eta ume aurpegia. Irudi hori herritar askok ikusi dute Facebook bezalako sare sozialetan eta manifestariek erakutsi dituzten pankartetan. «Lotsa nazionalaren ikurra» bihurtu da argazkia, manifestarien iritziz.

Bahitzaileak 30 urte besterik ez ditu. Kartzelara sartuko zutela konturatu zenean, zauriak eragin zizkion bere buruari eta erietxera eraman behar izan zuten, Poliziak jakinarazi duenez. Ikasle gazteari gertatu zitzaionaren eraginez, 23 agente lanik gabe geratu dira, edo kar-



gu hartu diete nagusiek, gu-txienez, hedabideek esandako-aren arabera.

Ikaslea polizia-etxean bertan erail izanak haserrea eragin du. «Nola lortu zuen bahitzaileak Burulai hain modu krudelean hiltzea, polizia-etxean zegoela?», galdetzen du Seiit Kojanaliiev biktimaren osabak. «Legeek ezer lortzen ez badute, zerbait egin beharokugu. Begia begi truk, odola odol truk».

Erdialdeko Asiako herrialde musulmanean tradizio bihurtua dute emaztegaia bahitu eta berarekin ezkontzea. 1920ko hamarkadan Kirgizistan Sobietar Batasunaren zati bihurtu zenerako hedatuta zegoen ohitura hori. Sobietar agintariak saiatu ziren ohitura ezabatzen, baina porrot egin zuten.

Gainera, desagertu beharrean, indartu egin zen ohitura 1990eko hamarkadan Sobietar



Ezkerreko orrialdean, neskaren erretratua jurta baten sarreran. Eskolara eramaten zuen uniforme jantzita ageri da, ile beltz liso eta ume aurpegiarekin. «Lotsa nazionalaren ikurra» bihurtu da Burulai Turdaaly Kyzy. Eskuineko irudian, Burulairen senideak bazkaldu aurretik. Vyacheslav OSELEDKO | AFP

Orrialde honetan, ikaslearen familiak Sokuluken duen jurta falta zaien senidea gogoratzeko egindako ekitaldi tradizional bat. Vyacheslav OSELEDKO | AFP

Batasuna desegin zenean. Begirale batzuek uste dute hori horrela gertatzearen arrazoiak ekonomikoak direla, ez kulturalak: neska bahituz gero, ezkongaiaren familiak ordaindu beharreko ezkonsaria txikiagoa izango da. Estatistikek garbi azaltzen dute arazoa izugarri hedatuta dagoela, ez dela pertsona bakar batzuk jasan behar izaten duten zerbait. Esaterako, iaz, Kirgizistanen ezkondu ziren nesken %20 inguru bahitu egin zituzten ezkondu aurretik. Horrela diote Gobernuak Nazio Batuei bidalitako datuek. «Emaztegaia lapurtzea» ez da delitu askoren-

tzat. Legeak dio zazpi urteko kartzela-zigorra ezarriko zaiela bahitzaileei, baina, gero, kasua ikertzen ere ez dira hasten biktimak salaketa aurkeztu ezean.

#### «GIZONEZKOEN ARDURAGABEKERIA»

Umutai Dauletova Nazio Batuek gaiaren inguruan abian jarritako ekimenen koordinatzaileak uste du arazoa «legearen errespetuan eta jarduera judizialean» dagoela. Horren erakusle, 2017an abian jarritako ikerketen %70 bertan behera geratu ziren, Nazio Batuek egindako lan baten arabera.

Ekainean Bixkek Kirgizistango hiriburuak bi manifestazio

jendetsu hartu zituen nahitaezko ezkontzen aurka protesta egiteko. Horietao bat Hezkuntza Ministerioak berak deitu zuen. Parlamentuan, berriz, Aisuluu Mamachova diputatuak esan zuen «gizonezkoen arduragabekeria arazo nazionala» dela gaur egun. Bastan Bekechev diputatuak Barne Ministerioaren ondoan ikaslea gogoraraziko duen monumentua eraikitzea proposatu zuen Parlamentuan.

Asol Moldokmatova telebista aurkezle ezagunak lan asko egin zuen protestak antolatzeko. Berak ere herritar askoren jokabidea salatu zuen, besteek esaten dutenari gehiegi begiratzeagatik. Ondorioz, sarri, herritarrek bahiketak ezkutatzeko aukera egiten dute. Bere iritziz, Burulairi gertatuak eta herri mugimenduek lor dezakete herritarren jokabidea aldatzea. Esan zuen 7.000 emakumeren mezuak jaso zituela protesten ondorengo egunetan, beraiek jandako egoeren berri emanez.

**Polizia-etxean bertan erail zuten ikaslea. «Nola lortu zuen bahitzaileak Burulai hain modu krudelean hiltzea, polizia-etxean zela?», galdetzen du haserre biktimaren osabak**

**Kirgizistan Sobietar Batasunaren parte bihurtu zenerako 1920ko hamarkadan hedatuta zegoen «andregaiak lapurtzeko» ohitura. Alferrik saiatu ziren sobietarrak berau ezabatzen**

